


MEKA-RUNTZ OTOITZ EGITEN ERMUKO MEZKITATIK

Pasa den uztailetik aurrera bada Ermuan Meka-runtz otoitz egiteko lekua. Bertoko marokiarrek heuren mezkita atondu eta zabaldu dute, eta gero eta gehiago dira Ala-rekin hitz egitera Iparragirre auzora jotzen duten musulmanak. Lehen musika akademia zena orain mezkita bihurtu da, eta bere ateak zabaltzea besterik ez dago beste mundu ezberdin baina interesgarri batetan murgiltzeko.

Atea jo, arratsaldeon esan eta sartzen zarenerako, bapatean beste dimentsio batetan zaude. Derrigorrezkoa da zapatak eranstea -errespetuko ohitura bera-, hala ere, txilaba eta feza norberaren aukeran daude.

Sartzeko esan, eta bertan aurkitzen ditut 12 bat lagun tea edaten eta solasaldian. Ezagunak ditut batzuk bistaz, gehienak ez ordea, baina bai hauek eta baita gaur etorriko ez diren askok eta askok, ni bizi naizen Ermua berean bizi dira, beste ohitu-



Mezkita gisa erabilitako Iparragirreko lokala.

ra, beste kultura eta bestelako bizi-modua eramanez.

Ez dut gehiegi molestatu nahi eta badaezpada ere galdetzen diet ea noiz duten otoitz egiteko ordua. Neguan egonik, lehenbiziko otoitza goizeko seirak inguruan burutzen dute, ordubatean, hiru térditan, sei-

tan eta zazpi térditan bukatzeko. Udaran izaten dira bestelako kontuak: egunak luzeak dira eta batzuetan lehen otoitza goizeko hirurak inguruan izan daiteke, gabeko hamaiak inguruan izanik azkena.

Erlojua begiratu, hirurak pasatxo direla ikusi, eta badakit orduerdi es-

MASAIA TERAPEUTIKOA
ETA ESTETIKA



ARCOS

Zeharkalea, 12 • Tlf. (943) 17 63 81

**DIETETIKA
ZENTROA**



HERBODIETETIKA
SENDABELARRAK

• KOSMETIKA NATURALA
• ERREGIMENEO ELIKAGAIK

Izelaieta, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52

Urdaitegia
MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefonoa: 17 24 12

**TXALAPARTA
TABERNA**

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

kasa daukadala heuren eguneko hirugarren otoitza hasi baino lehen. Denbora gutxi, egia esan, ditudan galdera guztiei erantzuteko. Betarik galdu gabe, prestatzen naiz jakinmina asetzeko.

Orain artean, Ermuko marokiarrak aukera gutxi zuten mezkitan behar bezala otoitz egiteko. Eibarko mezkita, Bilbokoa eta Gasteizkoak zituzten. Bilbo eta Gasteizkoak urrutiegi izanik, bazeuden Eibarra jaisten zirenak, batez ere asteburuetan. Dena den, lehen marokiar etorkinen atzetik beste asko etorri dira. Beraien seme alabak ere hazi

egin dira, eta azken urtetik honuntz argi ikusi da Eibarren ez zegoela nahiko leku mezkita konpartitzeko.

Gauzak hala, Udaletxera jo, baimena eskatu eta uda guztia pasa dute Ermuko lehen mezkita margotzen eta atontzen. Lan erreza izan da. Guztiek hartu dute parte, eta gainera egoitza bat mezkita bihurtzen duten gauzak ez dira zoruan jartzen diren alfonbrak edo sarreran laga behar izaten diren zapatak, ezta aipaturiko txilabak ere. Ermuko mezkita mezkita da bertara doazenak hala behar dutelako, eta hala nahi dutelako.

Orain artean, norberak bere etxean egiten zuen otoitz. Mezkita zabaldu denetik, aldiz, Iman-aren errezupean, lagun ugari biltzen da, jatorrizko beraien herrietan bezala, taldeka, mezkita batean eta Mekari begira, Koran liburu santuaren otoitzak erreztatzeko.

Beraien esanetan, ideia paregabea izan da, lehen Eibarko mezkita-
ra jaisten ez zirenak ere Ermukora bai joaten direlako. Gero eta gehiago dira, eta gauzak honela joanda ez litzateke harritzekoa izango beste mezkita handiago bat martxan jarri behar izana.

Gaur egun, Ermuko mezkitzat gain, Euskal Herriko mailan ere badira Zumarragan, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon (bi), eta hesparrua pixkat zabalduz Logroño eta Bivriescan ere aurki daitezke. Aipatu

behar da, oso ohitura arrunta dela marokiarraren artean

bisitak bueltatzea mezkita-
kitak direla eta.

Hala, azaroaren 12an

Ermuan izan ziren aipatutako herri horietako eta

inguruko beste hainbat herritako

marokiarrak, eta laister berriro bilduko dira guztiak Logroñon. Epe laburrera, hori bai, Iruñean mezkita berri bat zabaltzeko asmoa dago, bisita-txangoen zirkuituari gehituko litzaiokeena.

Ermuko marokiarrak gustora daude bertan. Ez dute herriarekiko inongo kexarik. Ez dira bazterturik sentitzen eta beti ondo tratatu izan zaiela aitortzen dute. Gustora bizi dira, eta are gustorago mezkita dutenetik. Alaren profeta den Mahomak behin esan bezala, ermuarrek Mekara ez badoaz, gutxienez lortu dute Meka Ermura ekartzea.

IÑAKI MORENO,



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA

MATRIKULA ZABALIK HAUR,
GAZTE ETA NAGUSIENTZAT

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak,
musika aparatoak...
prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

ESKA EHUNAK

- Jantziak egiten dira
- Ebaketa ta jantzigintzazko klaseak ematen dira

Goienkale, 9 • Tlf. 17 44 69

ZABAL

KAFETEGIA

Cardenal Orbe Plaza